

MORU PROIEKTUA. GURE INGURUMENA ZAINDUZ

Lekua:	Elgoibar (Gipuzkoa)
Modalitatea:	Ondare berreskuratzea eta ingurumena
Helburua:	Moru mendiko aztarnategia eta herriko kultur elkarten lokalak egokitzea
Egunak:	Uztailaren 16tik 30era
Adina:	18 – 26 urte.
Plaza-Kopurua:	20 txanda bakoitzean
Esparrua:	Nazionala
Hizkuntza:	Gaztelania eta euskara

Gipuzkoako lurralde historikoaren mendebaldean dago Elgoibar, Debarrena eskualdean, kostaldetik 13 kilometrora. Deba ibaiak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du udalerria, eta hainbat errekatxo sortzen ditu bere ibilbidean, tartean Azkarate eta Potomendi.



Biztanle gehienak hirigunean bizi diren arren, beste zazpi auzo daude Elgoibarren: Altzola, Arriaga, Sallobente-Ermuaran, Aiasta, Idotorbe, Azkue eta Urruzuno. Ibilaldi interesgarriak egiteko aukera eskaintzen duten mendi ederrez inguratuta dago herria. Mendi horietan, gainera, trikuharri eta tumulu ugari aurkituko ditugu.

Herri industrial da Elgoibar, makina erremintaren hiriburua.


Kultur ondareari dagokionez, aparteko aipamena merezi dute udaletxeak eta San Bartolome elizak, barrokoak biak, eta Olasoko hilerriko arkupe ikusgarriak. Herrigunetik kanpo, Altzola auzoan, XIX. mendeko bainuetxea dago. 1846. urtean ireki zuten eta bertako ur termal eta gaziek ospe handia izan zuten. Egun, auzoaren izena daraman ura botilaratzen dute bertan.

Informazio gehiago: Elgoibarko Udala: <http://www.elgoibar.eus/index.php/>

AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA

Auzolandegian parte hartuko duten gazteek bi ekintza oso desberdinak egingo dituzte.

Alde batetik, Moruko aztarnategi arkeologikoan Hirigintza Saileko eta herriko Morkaiko Mendizale Elkarteko adituen laguntzaz, gazteek hobekuntza lanak egingo dituzte: garbiketalanak, landare espezie inbaditzaileak kendu eta bertako landareen landaketa, aztarnategi arkeologikoan laguntzaile lanak...



Beste alde batetik, udalak herriko elkarte eragileei utzitako hainbat lokalaren kontserbazioan lagunduko dute: garbiketa, margolaritza, grafitiak, konponketa eta kontserbazio lanak, altzari muntaketa eta abar.

ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren ingurunea hobeto ezagutzeko. Bestalde, Euskadiko kultura eta ohiturak ezagutzeko lagungarriak izango dira.

Hainbat jarduera antolatuko dira, besteak beste, txangoak, bisita kulturalak Euskadiko hiri nagusietara eta kostaldera, bisita gidatuak herria, herriaren historia eta museoa ezagutzeko, kirol-ekintzak edota jolasak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

Programa aurrerago zehaztuko da programa. Animazio taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak.

ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- | | |
|---|--------------------------------|
| ➤ Lo-zakua (ez dago izararik) | ➤ Kapela eguzkitarako |
| ➤ Burkoa (behar baduzu) | ➤ Eguzkitako krema |
| ➤ Garbitasun pertsonaleko artikuluak | ➤ Eguzkitako betaurrekoak |
| ➤ Dutxarako eta igerilekurako toallak | ➤ Bainujantzia |
| ➤ Berokiak eta euritako arropak | ➤ Txankletak |
| ➤ Mendiko oinetakoak eta kirola egitekoak | ➤ Motxila txikia txangoetarako |

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

- NAN edo atzerritzar-txartela edo pasaporteak.
- Osasun-txartel indibiduala

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: Auzolandegia bi tokitan kokatuko da:

- Herriko kultur elkarten lokaletan.
- Moru mendiko aztarnategian.

Ostatua: Elgoibarko Arreiturre Institutuko eraikina izango da.

Eraikinak dutxak, komunak, bi sukalde eta jangela bat dauka. Kanpoaldean futbol zelai eta frontoi bat dago.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Auzolandegiaren lehen egunean, **Elgoibarko Udaletxean, 18:00etan**. Santa Ana kalea, 2.

Ordu horretan etorri ezin baduzue, arrazoiaren batengatik beharko du izan, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzan jakinarazi beharko duzue beti, eta, edonola ere, hurrengo 24 ordutan agertu beharko duzue.

NOLA HELDU AUZOLANDEGIRA

[Elgoibarren \(Gipuzkoa\) kokapen-mapa](#)

Kotxez:

Bilbotik (51km): N637 Derio/ A8 Donostia/ A8 Elgoibarko irteera.

Donostiatik (44km): A8 Bilbo/ A8 Elgoibarko irteera.

Gazteiztik (52km): GI627 Bergara-Maltzaga/ N634 Maltzaga-Elgoibar.

Autobusez:

Donostiatik (35 min). **Pesa** autobusak. Telefonoa: 902 54 32 10

Trenez:

Euskotren: Donostiatik Elgoibarrera (ordubete); Bilbotik (ordu bat eta erdi). Telef.: 902 54 32 10

NOIZ AMAITZEN DEN AUZOLANDEGIA

Auzolandegia azkeneko egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 9:00ak eta 10:00ak bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak partaide bakoitzari istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguruia egingo dio.

Hala ere, gazte bakoitzak bere **osasun-txartel indibiduala** ekarri beharko du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA E-POSTA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel.: **945 01 95 01 – 945 01 95 36**
- Posta elektronikoa: gazteria-auzolandegiak@euskadi.eus

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, auzolandegietako arauak ezagutzea komeni da. Ikusi www.gazteukera.euskadi.eus webgunean (Auzolandegiak – Ezaugarriak, kuota eta arauak).

PLAZARI EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia www.gazteukera.euskadi.eus webgunean dago (ikusi Auzolandegiak - Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea izeneko atalean).